

# **AGAMUNDAKO IZKUTUKI IZUGARRIAK**

**Barandiaran'go Joxemiel**

*Agamunda* Ataun'go bi auzene San Gregorio eta Aya izeneko bitartean dagon mendi bat da. Bere gaillurretik sartalderuntz daukan apalean dago *Agamunda'ko leizea*. Mendiaren oiñean, *Ergoone'ko* ordeka eta auzoa, eta aratago, aurrez-aurre, *Miruatza'tik Aitxua* bitarteko mendi-lerroa, bere tontor eta lepoakin, ogei trikuarrien oroiak.

ARPEA.— Agamundako leize edo arpea *Marimunduko'ren* bizilekuetako bat dala diote. Mari omen da lurpean bizi diran irelu guztien buruzagia. Bere senarra omen da *Sugaarra*, iñoiz arpe ontara etorri oi dan irelua, su ta gar ostrian, arpe batetik bestera, ibiltzen dana. Ekaitzen sortzaileak ornen dira.

Arpe ortan egoten ornen dira *baxajaunak* eta *etsaiak* ere.

Beste sarrera bat ere ba omen du arpeak, orain ezezaguna: Ergoone'ko *Andralizeta* izeneko baserriaren sukaldean. Esan oi danez, arpeko *baxajaun* eta beste ireluak gauaz ara juaten omentziran eta ango esneak edan: ildakoen edo izuargien jokaera, alegia.

Irelu oriek edo orietako batek menikezean zebiltzanak etzituan onartzen eta zigorkatzen zituan. Ala adierazten digu Ataun'en maiz entzun degun esaunda goibelgarri onek:

Ergoone'ko *Arbeldi* baserri-etxean alaba bat omentzuten, Aya auzeneko etxe batean neskane zegoena. Jaiegun batean neskatz ori, beste askotan bezala, bere jaoit-etxera etorri omentzan, ustez-eta berriro arratsaldean Aya'ra itzuliko zala. Bainan bera nagi Aya'ra igotzeko. Beren amak dei egin, juateko garaiazala. Neskeak ordea bertan jarrai. Amak madarikatu omentzuan bere alaba. Orduan neska irten omentzan. *Agamunda* zearretik gora zijoala, ango leize-etakaren ertzean urritz bat alez betea ikusi omentzuan. Urritzgañera igo, urrak biltzeko asmoan. Bainan irrist egin eta leize-barrura amildu. Arrezkero neskearen berririk ez. Geroago *Arbeldi'ko* zubi-azpian agertu omentzan neskearen beatz bat bere eratzunarekin.

INGURUA.— Agamunda'tik urbil, sortaldean, *Urkillaga'ko* bidegurutzea dago. Alderdi aietako lagunak diotenez, an gauaz agertzen omentzi-

ran izuargiak —ildakoak—, zeruan sartzeko eskubide gabeak, beren iljantzi bedeinkatuak batebatek kenduko zeizkien ustean. Mende onen aseran ba zan esaera Andralizeta'ko gizon bat, kakoa eskuan, izugarriai iljatzia kentzera toki artara igotzen zala.

Urkillaga'ko gurutzetik aratago, Maumendi'ra dijoan bide-gainean dago arkaitz aundi bat: *Armuntaitz*. Andik aurreraxeago izen bereko arpea. *Mendiurkullu* etxeko artegia izana. Bainan baita jentillen bizilekua ere, ingurukoen esaundak digutenez. Goizetan ikusten omentziran an, eskaratzo lurrazalean, oinaskak: gauaz barrundik irteten ziran jentllenak zirala esan oi zuten inguruetako lagunak.

Ba da esaera, leengo aldietan Armuntaitz'ko jentil-emakume bat, beerago dagon *Aiarre* izeneko baserrira jexten zala, angoai nekazaritzan laguntzera. Baita neguan, gauetan, baserri ortara juaten omentzan, auzuneko beste emakumeakin batera ardatzean egitera.

Armuntaitz'ko arpea, leen-gizonen bizilekua izana noski; bertan arkitu izan dira burni-aroko lurrontzien zatiak.

Aipa degun Aiarre etxea baino beerago daude *Aiiturrieta* izeneko tokia eta itunia. An, ondoan, jentillak bizi omentziran. Auetako emakume bat, *Zirpizirbi* izeneko, artajorran ari omentzan Aiarre'koai laguntzen, auen soro *Kiskarre'n*. Ala ari zirala, Aiiturrieta'ko jentillak deadar Kiskarre'ko langilei esanaz: *Zirpizarba* il zaigu. Zirpizirbi berealaxe jetxi omentzan Aiiturrieta'ra. Urrengo egunean itzuli omentzan Aiarre'ra eta bere laguna ilda zala esan omentzuan. Jentil-emakume au ere, Armuntaitzekoa bezala, neguan, gauaz, Aiarre'ra juaten omentzan ardatzera.

Armuntaitz'tik egoalderuntz bidean ibiliaz, laster irixten al da bat Maumendi'ko zelaira. Emen bizi izan omentziran leenago *Maru* izeneko ireluak, buruan adar bi zituztenak. Hauek baitzen ornen zituzten iñoiz ara inguratzen ziran kristauak eta abereak.

Maumendia'ren ondoan daude *Ubedi* izeneko leizea eta ordekea. Leize ontan bizi izan omentziran jentillak, baxajaunek, maruak eta zezen-iduriko beste irelu batzuek. An barruan egoitza aundiak ornen dira eta aietan egoten jentillak aipa ditugun ireluak. Iñoiz, inguruan dabilzan kristauak entzuten omendituzte arpe-barrundik datozten abesti, txitu, ttuntun eta beste joare edo siñu ederrak. Bainan asko urbiltzen bazera leize-atakara, dana ixiltzen.

Esaunda batek digunez, bein Ostiral-santuz, *Zmatzene* baserriko iru anai igo omentziran Ubedi-ingurura eta leizetik urbil asi txabola eraikitzen. Iru txekor gorri leizetik irten eta txabola-egilleengana abaiatu. Auek izutu eta *Agauz* izeneko mendigañeruntz iges. Txekorrak euren atzetik. Iru anaietan bat Agauz'ko Aldatsa deitzen diogun arratean ill omentzan; bigarrena berriz, beerago *Sinolatza'ko* saroiari. Irugarrena iritxi omentzan Imatzene'ra; bainan, andik egun gutxi barru, bera ere ill.

Ubedi'ko ordeka-gainean dago *Sastarri* izeneko aitza eta an arpe aundi bat. Bere aska edo barrunbide bat, aski luzea eta ederra; bestean berriz osina. Inguruan lanean ari zan ikazkin-talde batek, bear zuan ura andik eramate,

omentzuan. Aietako mutil bat, pitxarra eskuan, urtara juantzan batean, lasterka itzuli omentzan ikazkin-txabolara, pitxarra utsik zuala eta, an arpean, norbait zebilela esanaz. Ondoren taldeko nagusi bat, pitxarrarekin arpera juan omentzan. Bera ere ordea izaturik eta urgabe itzuli, esanaz: *arpe-atakan soin egokidun eta apainjantzitako emakume eder bat ageri da: ori ez da alde onekoa, dirudienez Marimunduko, Agamunda'tik edo Muru'tik etorria*. Andik aurrera beste iturri batetik ura ekartzen omentzuten.

Sastarri eta Agauz-gainetik sartalderuntz, *Iruzuloeta'ra* bitarteko mendilerroan dago *Aitzgaizto* izeneko tontor bat. An bizi omentzien jentillak. Auetako bat jexten omentzan egunero beraxeago dagon *Leizadi'ko* arpera eta bertan zegoan artzaiari esnea eskatzen. Artzaiak ordea, aski asperturik, jentillak jarlekutzat artzen zuan arria sutan guriturik jarri omentzion egun batez. Jentilla etorri omentzan eta jarlekuan jarri zaneko atzekoaldeak erre ornen zikaizkion eta berak orduan andik alde sekulako.

Beste jentil bati ere gauza bera egin omentzion Aitzgaizto'tik sortalderuntz dagon Sinolatzako sarioian bizi zan artzai batek.

Aitzgaizto'ko jentillek ikusi omentzuten izar eder bat eta eurotako zaar batek orduan esan: *Kixmi* «Kristo» jaio dek eta *gureak egin dik* «jentilgoa galdu dek».

Aipa degun Sinolatzako saroitik bertan da iturri bat, ur usanduna ematen duana, sendakaitzat erabili izan dana. An ba ziran leen —orain ez— «Erremedio» izeneko urastegia eta baserriete bat.

Etxe artan biltzen omentziran gauaz neguan inguruko emakumeak alkarrekin ardatzean egiteko. Bein izpidetu omentziran: ea iñor juaten al zan Ertzillegi'ko iturrira urtara, kilometro-erdi bat bide. Bertako neskatx Katalin trebe zala andik ura ekartzeko eta, erradea buruan, irten omentzan. Aldian bein bidetik otsegiten omentzuan esanaz nun zijoan. Azkeneko otsa iturrialdeko zubitik egin omentzuan. Andik laster Erremedio'ko atarian aren zai zeuden lagunak, euren gaineko aidetik hitz auek entzun: *Gaua Gauekoarentzat eta eguna egunezkoarentzat, Katalin guretzat*. Katalin ez omentzan geiago agertu. Azkeneko bere itzak zubi batetik izan baitziran, zubi ari geroztik *Katalinzubi* deitu izan zaio.

Agamunda'ren sartaldeko albo-barrenean erribidea eta *Agauntza* ibaia daude. Bide ortan goruntz abiatu eta laster daude *Mandubiitta* izeneko tokia eta zubia. Ba da esaera leku artan biltzen zirala sorgiñak gauaz. Andik gora zijoan leenago mandabidea Alsasu'ra eta Urdiain'a, Berno'ko lepoan iraganez. Lepo ontan ba da trikuarri bat eta bere ondoan *dantzaleku* izeneko zelaia. Emen biltzen omentziran sorgiñak aldi batean. Auezaz eta mandazi batezaz entzun izan degun esaunda bat oso aipatua da. Berak dionez, toki artan mandazaiak, sorgiñen bidez, jakin omentzuan errege baten alaba, oso gaixorik zegoana, nola senda zitekean. Mandazaiak eramane omentzion erregeari berri ori. Gaixoa sendatu omentzan eta mandazaia, aberasturik, etxera itzuli. Onen anaia, ori jakitean, Berno'ra mandoarekin igo omentzan, ustez eta berak ere berri aberasgarri bat sorgiñai etnzungo zielakoan. Bainan

sorgiñak mandoa ikusi, eta mandazaia gero zuatx-gainean izkutatua. Biai eldu eta sasiz-sasi arrastaka erabili eta arrunt zaurituak utzi. Goizaldean gure beingo mandazaia elbarriturik etxera.

Agamundatik sartalderuntz, Bemo baino urbillago, ageri da *Muski* mendia eta an arpe bat, *baxajaunen* eta Torto'ren bizileku izana. Ango baxajaunak garia erein eta ogi zuria jaten zutenak. San Gregorio auzunean bizi zan *Sanmartintxikit* Muski'n ebatsi galazia eta emendik munduan zear zabaldu ornen ziran garia eta ogizuria: ala da esaunda.

Torto begibakarrak kristau bat atzitu omentzuan. Bainan onek berari begia galdu eta iges egin. Au bera Zegamako Tartaloetxeeta'n ere gertatu omentzan.

Agamundatik iparralderuntz urbil ageri da *Mendiurkullu* baserrietxea. An aspaldi bizi izan zan etxeoandreak alaba bat omentzeukan ezkondurik *Arbilleta* baserrian. Biak elkarrekin oso aserre omentzeuden. Alaba gaixotu omentzan eta elizakoak egin. Ama ordea ez omentzan beragana ikustaldi bat bederen egitera ere jua. Egun batez Mendiurkulluko ataria aizeburrunda batek jo omentzuan eta alaba gaixoaren amak atetik ots egin: *baduramanea bai merezi denan tokira* (inparnura). Alaba unetxo artan illa omentzan. Ildakoak iñoiz aizeburrundaren tankeran agertzen diralazko sinismena baita.

Mendiurkullu'tik aratago (iparralderuntz) Igartu'ko sarioa dago eta an aspaldiko etxe baten orma-zatiak. Ba da esaunda an iñoiz agertzen zirala ireluak aidean dantzan edo ara eta ona zebiltzanak. Gauza bera ikusten omentzan andik sortalderuntz dauden *Aspildi* eta *Iruzulota* izeneko bi aitzen tartean ere,

Aipa degun *Iruzulota'ko* aitzean dauden arpeetan jentillak bizi omentziran. Gau batez aitz aren oinean *Artzate* baserrietako lagunak arraukari su ematen ari zirala, jentil batek aitz gainetik oiuegin omentzien. Orduan Artzate'ko batek ots egin: *obe egingo uke guri laguntzera etorriko baintzake*. Jentillak bereala ar-maillo aundi jaurtiki eta arrauka-sapaia zanpatu eta lertu. Oraindik an ageri dira arrauka-zuloa eta erdian arkaitz aundi bat.

Iruzulota'ko aitzaren iparraldeko alboan dago *Gurutze-gorri* izeneko tokia eta bertan *Sugarzulo* deitu oi diogun leize bat. Ara maiz etorri izan dala *Sugaara* edo Mari'ren senarra esan oi da.

AZKEN-ITZAK.— Agamunda'ko eta bere inguruko mendi, ordeka, lepoka, zelai, leize, iturri eta baseri-etxei itsasiak datorzkigu esaunda asko, irelu-mota batzuen, izuargien, sorginen, Mari'ren, Sugaarra'ren eta jentillen mundu miresgarri eta bildurgarri bat, naizta omenetako mundua, kristau sinismen eta erligioaren alboan eldu zaigüea, aoz-ao leen-mendeetatik datorkiguna.

Ori guztia orain gainbera dijoa lastema eta bere lekuan mito berriak sortzen, uranbillen gainean edatzen eta bazter guztietan nagusitzen.

Ataun'en, 1984go Uztailaren 9n.